

FUNTSEZKO JARDUERAK

Atal honetan, gure enpresan egingo ditugun jarduera garrantzitsuenak zerrendatuko ditugu. Jarduera hauek gure balio-proposamenaren eskaintza garatuko dute, gure bezero potentzialengana iristeko lagunduko digute, eta haiekin eraginkortasunez harremanetan jartzea eta diru-sarrerak lortzea ahalbidetuko gaitu.

Gure enpresaren **funtsezko jarduera** ondorengoa da: **Arazoak konpontzea**. Zehazki, adineko pertsonen zaintza zerbitzu gertukoa eta profesionala ematea. Jarduera hau funtsezkoa denez, ezin dezakegu hau azpikontratatu eta guk geuk egin beharko dugu.

Gure zaintza zerbitzuak emateaz gain, beste hainbat jarduera garrantzitsu ere baditugu, hala nola, gure webgunearen gestioa eta gure enpresaren kontabilitatea eramatearen jarduera. Bi jarduera hauek garrantzitsuak dira, baina aurreko parrafoan esan bezala, gure enpresaren funtsezko jarduera gure zaintza zerbitzua modu egoki batean ematea da.